

### 3. INGURUMEN-POLITIKAK OSASUNA POLITIKA GUZTIETAN ESTRATEGIAREN ESPARRUAN

Ingurumen-politiken planteamenduak eboluzionatu egin du azken urteetan ingurumenaren garapen jasangarrian aurrera egiteko. Euskadiren kasuan, ingurumen-politikak Europar Batasunaren Estrategiarekin bat egiten du. Estrategia horrek 2050erako planteatzen du karbono-isuri baxuak dituen gizartea bat izatea, ekonomia berde eta zirkular bat eta herri-tarren ongizatearen oinarriak ezartzen dituzten erresilientziadun ekosistemak izatea<sup>13</sup>. Beraz, ez da soilik kezkatzen ingurumena zaintzeaz, baizik eta, OPGren strategiaren ikuspegiarekin koherentzia gordez, erdigunea biztanleriaren ongizatean jartzen du.

Aipatutako strategiarekin duen beste osagai komun bat da ingurumen-sektoreak duen tradizioa industriaren edo hainbat erakunderen proposamenen ex ante ebaluazioan<sup>14</sup>. Hori da Ingurumen Ebaluazio Integratuaren kasua, proposamenen inpaktu potentziala ebaluatzen baitu (estrategiak, programak, planak edo proiektuak) osasunaren, ongizatearen eta bizi-kalitatea zehazten dituzten alderdi ekonomikoetan, ingurumenekoetan eta sozialetan<sup>15</sup>. Gainera, Euskadin indarrean dagoen ingurumen-politikak politika hori garatzeko, parte hartzeko eta zeharkakotasuna zuzentzeko elementuak ere baditu.

Aurreko guztiak kontuan izanik eta horren edukiak OMSekin (esaterako, ingurune fisikoa, mugikortasun aktiboa, garraioa edo enplegua) duen erlazio zuzena, egokia da ingurumen-sektoreko politiken bidez gobernuaren ekintzan osasuna integratzeko bideari ekitea.

Osasun Sailaren ustez, sektore sanitarioaz harago osasuna politiketan integratzeak esan nahi du osasunaren aldeko abokatutza egitea, bai informazioa bai ebidentzia zientifikoa eskaintzea eta, beharrezkoa denean, proposatutako politikez bestelako irtenbidea negoziatzea. Finlandian (bertan OPGk aurrerapen handia izan du) hainbat mekanismo horizontal ezarri ziren,

13 *El medioambiente en Europa. Estado y perspectiva 2015*. Informe de síntesis. Copenhague: Agencia Europea de Medio Ambiente, 2015

14 Patrick Harris, Francesca Viliani, Jeff Spickett. Assessing Health Impacts within Environmental Impact Assessments: An opportunity for public health globally which must not remain missed. *Int J Environ Res Public Health* 2015, 12, 1044-1049

15 Robert Quigley, Sue Cavanagh, Dominic Harrison, Lorraine Taylor, Melanie Pottle. *Clarifying approaches to: health needs assessment, health impact assessment, integrated impact assessment and race equality impact assessment*. London: NHS: Health Development Agency, 2005

